

**EUSKAL DIASPORAREN EGUNA**
DÍA DE LA DIÁSPORA VASCA

2021-09-08 Gasteiz 08-09-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Biltzarburu andrea, Arabako Ahalduen Nagusi jauna eta zuekin batera zareten: herri agintari eta herri ordezkari guztiok, Vital eta Sancho el Sabio Fundazioen arduradunok, jaun andreok, egunon.

Euskal diasporaren Nazioarteko Eguna, laugarren urtez jarraian antolatu dugu.

Azken bi urte hauek zailak, bereziak izan dira; baina hemen gaude, elkartu gara, elkar hartuta gaude eta etorkizuneko bidea elkarrekin egiteko gogoarekin.

Pandemiari aurre egiten ari gara mundu osoan eta gure lehen hitzak hildako pertsona guztiak eta beraien senitartekoak oroitzeko dira. Gasteizko Sempervirens Parkean beti izango ditugu gogoan.

Diasporaren Eguna, Euskadi fisikotik, kanpoan dauden Euskal Komunitateen eskaera historikoa izan da. Nahi eta behar hori betetzen dugu. Jakin badakigu euskaldun askorentzako Egun hau garrantzitsua dela.

Gaur, Diasporaren Egun honen helburu bikoitza azpimarratzen dugu:
-alde batetik, Diasporaren errealitatea eta garrantzia Euskadin bertan zabaltzea; eta,
-horrekin batera, munduan zehar dauden euskal komunitate guztiak elkartzea, txikiena ere kontutan hartuz.

Pixkanaka, urtez urte, ideia eta helburu hori sendotzen ari gara. Berez, ez da hutsala gaur hemen elkartzea eta 14 herrialdeetan berrogei eta hamar bat ekimen eta hainbat jarduera antolatu direla jakitea, Egun berezi hau ospatzeko.

Hemen bertan “Basques in California” erakusketa ezagutu dugu edo Pirinotako bi aldeak elkartzen duen musika entzun dugu. Han eta Hemen, bat gara, euskaldunak gara.

Un saludo muy especial, este año en la cuarta edición y desde Gasteiz, a todas las personas que, en este momento o en otro momento podáis seguir o este Día internacional de la Diáspora Vasca, sea por razón horaria o por cualquier otra razón.

Hoy, las iniciativas que hemos dado a conocer en este acto se suman a más de medio centenar de actividades y diversas iniciativas en las redes sociales organizadas en 14 países.

Euskadi se siente orgullosa de sus Comunidades Vascas en el Exterior y de sus Euskal Etxeak: una comunidad activa, abierta y dinámica que hoy, una vez más, apelando a la imaginación, muestran al mundo el ser y el sentir vasco.

En este acto aunamos pasado, presente y futuro.

- El pasado de nuestra historia migrante mediante la exposición Basques in California.
- El presente con la agenda mundial de actividades y el reto #EuskoChallenge.
- El futuro con la puesta en marcha de la iniciativa HanHemen.

Esta mirada responde al gran reto que nos hemos propuesto:

- Reconocimiento y puesta en valor de la historia migrante vasca;
- Apoyo a las distintas comunidades vascas existentes y futuras; e
- Ir tejiendo una gran red de vascos y de vascas a lo largo del mundo que, apoyada en las nuevas tecnologías, aporte valor a la presencia y proyección de Euskadi Basque Country.

Este compromiso, este reto compartido, está avanzando:

- contamos con el Archivo de la Diáspora Vasca que en poco más de dos años ha recibido donaciones a disposición de las personas que quieran profundizar en la Historia de la presencia vasca en el mundo;
- el Grado de Especialización Universitaria que comenzará próximamente en la Universidad del País Vasco, una oferta de especialización única en Europa que ha tenido muy buena acogida; o
- la iniciativa HanHemen, un proceso gradual de construcción de una gran red mediante la puesta en común de ideas, experiencias, propuestas, necesidades... en un proceso de innovación social y digital.

Ibilbide hau partekatzen ari gara, Han eta Hemen. Urte zailak izaten ari dira, baina Euskal Etxeentzat eta kanpoko euskal komunitateentzat ere.

Horregatik, gure aitorpenik zintzoena adierazten dizuet, egokitzeko eta zoritxarrari aurre egiteko erakutsi duzuen gaitasunagatik.

Bat egiten dugu lehen mailakoa den xede batetan: munduko hainbat lekutan euskaldunak kohesionatzen jarraitzeko. Urruti edo gertu egon euskaldunak gara eta gure Herriaren balioak hedatzen ditugu: gertutasuna, konpromisoa, eskuzabaltasuna eta elkartasuna.

Pandemiaren momentu zailenetan horrela erakutsi duzue. Orain, espero dugu datorren urteak amesten dugun normaltasuna ekartzea. Espero dugu Jaialdia, "Buenos Aires Celebra", Euskal Aste Nazionala eta antolatzen ohi diren ehunka eta ehunka ekimen berri ere ospatzea.

Ekimen hauek mundu osoan bizi den euskal komunitatea sustatzen laguntzen dute. Ekimen hauek Euskadi Basque Country-ren izena eta izana eraikitzen dute, Han eta Hemen.

Vivimos momentos difíciles, también para las Euskal Etxeak y las comunidades vascas en el exterior. Por eso, traslado y comparto nuestro reconocimiento más sincero por la capacidad demostrada para hacer frente a la adversidad y ayudar a quien más lo necesita.

Estoy seguro de que con el trabajo conjunto y con la ilusión que hoy renovamos, “Han eta Hemen, Hemen eta Han”, saldremos juntos y reforzados de esta pandemia. Volveremos a mostrar al mundo la gran red de personas con que contamos en el exterior.

Nuestro reconocimiento al trabajo silencioso, voluntario y constante de estas miles de personas. Aportáis lo mejor que tenéis a la comunidad y contribuís a fortalecer la imagen de Euskadi mediante la cultura, la gastronomía, el deporte o la difusión del euskera. Sois un gran activo para vuestros Centros, vuestras Comunidades y para nuestro País, Euskadi.

Pandemiaren osteko argia ikusten hasi gara. Ziur nago elkarlanarekin eta gaur berritzen ari garen ilusioarekin "Han eta Hemen, Hemen eta Han" pandemia honetatik elkarrekin eta indartuta irtengo garela.

Ziur nago munduari erakutsiko diogula, berriro ere, euskal sarearen indarra eta gogoia.

Eskerrik asko eta jarraitu dezagun indartzen Euskal Diaspora eta ospatzen Euskal Diasporaren Eguna!